Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko otsailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko otsailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.111 izan da, otsailean baino 19 gehiago eta joan den urteko otsailean baino 529 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko otsailean 186 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 454 Gipuzkoan eta 471 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 40,9 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 42,4 Gipuzkoakoetan eta % 16,7 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 14,1 hazi dira eskaintzak (23 eskaintza gehiago). Gipuzkoan 65 eskaintza gehiago izan dira (% 16,7ko hazkundea) eta Bizkaian 31 gehiago (% 7,1eko hazkundea).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 99 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 113,8ko hazkundea, Gipuzkoan % 116,2 hazi dira (244 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 65,3 hazi dira (186 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 19,6a zientzia teknikarien profilerako erregistratu dira (218 eskaintza); eta, % 19,1a laguntza teknikarien profilerako (212 eskaintza). Industria, zerbitzu eta kualifikatu gabeko profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 203, 195 eta 119 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 7 eta 10 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan hazi dira eskaintzak, bitan izan ezik; operadoreak (-12) eta ez kualifikatuak (-10). Gehien hazi diren eskaintzak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, industriako profilekoak izan dira (47 eskaintza gehiago, % 30,1eko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, zerbitzuetako profilekoak izan dira (125 eskaintza gehiago, % 178,6ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, zuzendarien profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (%900eko hazkundea, 9 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 23,9k kontratu mugagabea eskaini dute; % 75,3k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,8, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 266 izan dira, aurreko hilabetean baino 69 eskaintza gehiago (%35eko igoera). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 49 eskaintza gehiago erregistratu dira: 837 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 6,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko otsailean 8 izan dira, aurreko hilean baino 1 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 179 gehiago izan dira (% 205,8ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 74,7 hazi dira; 37 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 8 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko otsailean erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurden baino gehiago (795 eskaintza, % 71,6) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 13k (144 eskaintza) 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,7ko pisua dute (30 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,5ekoa da (6 eskaintza).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, gehien murriztu direnak, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (14 eskaintza gutxiago, % 9,3ko murrizketa). Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (94 eskaintza gehiago, % 13,4ko hazkundea); balio erlatiboetan, berriz, 5 urte baino gehiagoko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (% 50eko hazkundea, 2 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (402 eskaintza gehiago, % 102,9ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (% 200eko hazkundea, 4 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12,1ek zehazten du datu hori (1.111 eskaintzetatik 135). 135 eskaintza horietatik, 97k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 38ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 24 gehiago izan dira urtarrilarekin alderatuz, hau da, % 32,9 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 7 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 22,6koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 38 gehiago izan dira (% 64,4ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 22 gehiago izan dira (% 137,5eko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 25 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 3 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 21 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 79,3k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.111 eskaintzetatik 230ek soilik zehaztu dute.



230 eskaintza horietatik, 97k LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 71 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (43 eta 8 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (13 eskaintza gehiago, % 15,5eko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 37,5eko hazkundea, 3 eskaintza gehiago).

2021eko otsailarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Balore absolutuetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak (56 eskaintza gehiago, % 136,6ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, batxilergoko ikasketak dituztenak izan dira bilakaera onena izan dutenak (%175eko hazkundea, 7 eskaintza gehiago).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 18,9koa izan da (210 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat merkataritza da, eskaintzen % 15,7ko pisuarekin (174 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, gehien hazi diren eskaintzak, manufaktura industriakoak izan dira (52 eskaintza gehiago, % 32,9ko hazkundea). Nabarmentzekoa da ere merkataritzako eskaintzek izan duten hazkundea (30 eskaintza gehiago, % 20,8ko igoera). Gehien murriztu diren eskaintzak, bestalde, informazio eta komunikaziokoak izan dira; 20 eskaintza gutxiago eta %52,6ko beherakada.

Urte arteko saldoari erreparatuz, iharduera guztietako eskaintzak hazi dira. Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, industriakoak izan dira (119 eskaintza gehiago, %130,8ko hazkundea); balore erlatiboetan, berriz, ostalaritzakoak izan dira gehien hazi direnak (% 226,9ko hazkundea, 59 eskaintza gehiago).